

AUBIXA FUNDAZIOA

Gero eta zaharragoa den biztanleria, zahartzarora modan ez dagoen jendarte

Zahartzarora eta arazoa hitzak esaldi berean elkartzeko joera nabarmena da. Osasun arazoak, pentsio arazoak, zaintza arazoak... Askotariko arazoak lotzen zaizkio zahartzarori egungo jendarte. Begiratu horrekin kezkatuta sortu zen 2016. urtearen amaieran Aubixa Fundazioa.

«Aubixa Fundazioa Afagi elkarteak bultzatuta sortu zen –Gipuzkoako Alzheimerdunen eta bestelako demenziadunen senitartekoan eta lagunen elkarte–. Elkarte horretatik hausnarketa bat egin zen: non gaude eta gizarte honek hemen-dik urte batzuetara nolako argazkia izango du. Datuak garbiak dira. 2050ean gizarte honetako heren batek 65 urtetik gora izango ditu. Hirutik bat adinekoa izango da. Eta adinekoa esatea gauza asko esatea da; mendekotasuna, gaitzak, pentsioak... eta baita demenzia ere. Adituen arabera, 65 urtetik gorakoan %7-8 inguruk demenzia izango dute. Eta 80 urtetik gorakoetan, %25 inguruk. Egutetik egunera zahar gehiago dagoenez, demenzia gehiago dago. Eta hausnarketa horretatik abiatuta beharrezkoa ikusten genuen gaia gizarteratzea: non gaude, nora goaz eta zer neurri hartuko ditugu errealtate horren aurrean», agertu du erronka Maximo Goikoetxeak, Aubixako zuzendariak. Eta hain justu erronka horri oso serio eusteko asmoz sortu da Fundazioa.

Jendarteak bai ala bai mahai gainean jarri beharreko gaiak dira zahartzarora eta demenzia, «ia esparru guztiei eragiten dieten neurrian». Pertsonen bizi itzaropena luzatzearekin batera, lehen mailako gaiak bihurtu dira eta aurrera begira gero eta pisu handiagoa izango dutela aurreikusten dute adituek. «Garbi dago oraingo eta etorkizuneko erronka dela eta beharrezko ikusten dugu ekimen soziala indartzea. Gizarte honek prestatuta egon behar du eta gu horretarako sortu gara, erronka horri aurre egiteko», gaineratu du.

 **JENDARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

2050ean euskal jendartearen herenak 65 urtetik gora izango ditu. 65 urtetik gorakoan %7-8 inguruk demenziaren bat izango dutela diote adituek, eta, 80 urtetik gorakoetan, %25ek. Biztanleriaren zahartzarora buruhauste berriak dakartzala-eta, Aubixa Fundazioak gogoeta piztu nahi du jendarte.

Eskubideen gaia lehen lerroan jarri dute. «Adineko pertsonen %6k tratatu txarrak sufritzen dituela diote datu ofizialek. Alzheimerre dutenen kasuan, %25 ingurukoa da datua. Tratatu txar horien aurrean, eskubideen kultura sustatu behar da derrigor», esan du zuzendariak.

Eta bide horretan abiatu dira, esparru askotariko adituen laguntzarekin, eskubideen karta osatzeko lanean. Orain arte egon diren eskubideen kartak aztertu eta horiek gaurkotzen eta berritzen jardun du lantalde

zabal batek. Dokumentua datoren urriaren 20an aurkeztuko da Donostiako Kursaal.

Aubixa Fundazioak beste begi bat esparru soziosanitarioan dauka jarria. «Demenzia duten edota izango duten pertsonen kopuruaren aurrean gizarte antolatuta beharra dago. Arlo soziala eta osasun arloa moldatu egin behar dira eta haien arteko koordinazioa indartu egin behar da. Horren inguruko plangintza bat prestatzen ari gara, laster aurkeztuko duguna. Baina behar-beharrezkoa da demenzien

Irudian, adineko pertsonen talde bat Zumaian, parajeaz gozatzen. Kalkulu ofizialen arabera, 2050. urterako euskal biztanleriaren herenak 65 urte baino gehiago izango ditu.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

eta Alzheimerrearen aurrean gure gizarte ondo antolatzea, errealtate horiei erantzun egokiak emateko», gaineratu du Goikoetxeak.

Aubixaren hirugarren zutaina prestakuntza da. «Alzheimerre gaur-gaurkoz ez da sendatzen. Hartara, ikerkuntza eta zainketa dira horren aurrean bultzatu beharrekoak. Ikerkuntza alde batetik, eta, zainketa, bestetik. Guk oso garrantzitsu jotzen dugu zaintzaileak ondo prestatuta egotea eta horri heldu nahi diogu: zaintzaileak prestatzeko eskola bat sortu nahi dugu».

Inguru inklusiboak sortzea ere badago Aubixaren erronketan, ingurua errealtate demografikora moldatzea finean. «Bi arkitekto zuzenduta, lantalde bat esparru hori lantzen ari da eta dokumentu bat prestatzen ari da. Bukatzean gizarteratuko dugu dokumentu hori, zein al-daketa egin behar diren hausnartzeko».

Aipatutako erronka horiek jendarte osoarenak direla garbi daukate Aubixan, «erronka horiei guztiei belaunaldien arteko



ikuspegitik eutsi behar diegula uste dugu. Aubixa Fundazioa ez da zaharrek zaharrentzat mar-txan jarritako proiektua. Gazte-ek ere zeozer esan behar dute erronka horietan. Guk, behin-tzat, horrela uste dugu eta ezau-garri hori garrantzitsua irudi-tzen zaigu», nabarmendu du Maximo Goikoetxeak.

ARNASGUNE BAT AUBIXAN

Fundazioak izenaren atzean ere beste erronka bat ezkututzen da: Elgoibarko Aubixa baserrian sortu nahi duten arnasgunea. «Aubixako Maritxu gure funda-zioko kidea da eta bertan proiektu berritzaile bat jarri nahi dugu martxan. Lehen fase-an dauden gaixoentzat arnasgu-ne bat sortu nahi dugu».

Gaixoak eta zaintzaileak har-tuko ditu kontuan programa horrek. Aubixa baserria egokitu-ko da gaixo daudenek han aste-burua pasa dezaten edo asteen zehar egonaldiak egin ditzaten, eta prestatutako zaintzaileen la-guntza izango dute egonaldi ho-rietan. «Gure asmoa da proiektua aurtan onartzea. Hartara,

«Adineko pertsonen %6k tratatu txarrak sufritzen dituztela diote datuek. Alzheimerra dutenen kasuan, %25ek. Tratu txar horien aurrean, eskubideen kultura sustatu behar da»

«Dementzia duten edota izango duten pertsonen kopuruaren aurrean gizartea antolatu beharra dago. Arlo soziala eta osasun arloa moldatu egin behar dira»

2018. urtean barna baserria ego-kituko genuke eta dena presta-tu, 2019. urtean programa mar-txan jartzeko. Hori da asmoa», zehaztu du Goikoetxeak. Aubixa naturgune ederrean dago koka-tuta eta garbi daukate parajeak eta bertako lasaitasunak mese-de handia egingo dietela pro-graman parte hartuko dutenei.

ZAHARTZAROARI BEGIRATZEKO ERA

Azken hamarkadetan jendarte-ak zahartzaroa begiratzeko duen modua dezente aldatu da. Adinean aurrera joandako per-sona orokorrean jakintsutzat hartua eta errespetatua zen le-

henago. Orain, baina, gaztetasu-na goraipatzen da neurririk ga-be eta zahartzea lehen lerrotik apartatua izan da, «inork ez du zahartzaroaz hitz egin nahi, nahiz eta denok zahartuko ga-ren», iritzi dio Aubixako idazka-ri Martin Auzmendi. «Mende honetako erronkarik garrantzi-tsuena zahartzaroaren bazterke-tari aurre egitea dela esaten du-te adituek».

Martin Auzmendi aipatu es-kubideen kartarekin aritu da la-nean. «Lantaldean hasieratik galdera bat sortu zitzaigun: ego-kia ote da nagusien eskubideez hitz egitea? Alegia, pertsona na-gusiek, nagusi direlako, ez di-tuzte eskubide gehiago edo gu-txiago izan behar. Orokorrean besteen eskubide berdinak izan behar dituzte. Garrantzitsua da hori nabarmentzea; eskubideen karta egiterakoan ez ditugu es-kubide gehiago edo bereziak es-katzen adinekoentzat, pertsona bezala dituzten eskubideak errespetatuak izatea da eska-tzen duguna. Izan ere, gazteen aldetik egon daiteke mesfidan-tza bat, pentsa dezaketelako gi-

zartean benetako arazoak gazte-ek dituztela, ez zaharrek. Hori entzun izan dugu eta garrantzi-tsua da horri buruz hitz egitea. Guk eskubideen kartan nagu-sien eskubideez hitz egiten du-gu; bereziki mendekotasuna du-ten, baztertuak izateko arriskua duten eta babesik gabeko egoe-ran dauden nagusiei begirako-ak». Alegia, ez dituzte eskatzen orain pertsona nagusientzat es-kubide bereziak, berez dituzten eskubideak gogorarazteko arike-ta bat da proposatzen dutena.

Izan ere, askotan pertsona bat mendeko bihurtzen denean edota dementzia bat garatzen duenean, ingurukoek hartzen dute egoeraren kontrola eta be-rak, protagonistak, erabat gal-tzen du bere bizitzaren martxa.

«Urteak izateak berekin da-kartza askotan bestelakoak; ahultasuna, eritasunak, bazter-tzeko joera... Orokorrean, adine-an aurrera joanda ahulagoa bihurtzen zara. Eta dementzia duten pertsonetan egoera askoz larriagoa da. Guk aldarrikatzen duguna da memoria galdu dute-la, baina ez eskubideak. Egoera hori kaleratu egin behar da, gi-zarteratu: adineko pertsonak, dementzia izan arren, eskubide-ak dituzte. Etxekoen eta inguru-koen aurrean ez ezik, arlo sozio-sanitarioko profesionalen aurrean ere eskubideak dituzte. Errespetua, duintasuna, gertuta-suna, pertsonak bezala trata-tuak izatea... Egungo gizartean beharrezko ikusten dugu balore horiek denak mahaiaren gaine-an jartzea», nabarmendu du Goikoetxeak.

Adibide bat aipatu du, orain-tsu gertaturikoa. Jende ilara bat dago autobusaren zain. Ilaran lehena adineko gizonezko bat da eta gidariak atea irekitzen duenean autobuseko txartela-ren bila hasten da. Kostatu egi-ten zaio topatzea eta gidariak, haserre, esaten dio aurretik to-patu behar duela txartela: «Ho-na dena prestatuta etorri behar da». Egunero hainbestetan ger-tatzen diren egoera bat baino ez da.

«Kasu horretan bai gidariak eta baita ilaran zain daudenak sentsibilizatuak egon beharko

Martin Auzmendi eta
Maximo Goikoetxea,
Aubixa Fundazioko
arduradunak, Fundazioak
Donostian duen egoitzan.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS



lukete eta ez urduri jarri. Adinarekin erreflexuak eta gaitasunak moteldu egiten dira eta hori errespetatzen jakin beharko genuke. Beste aukera okerragoa da; nola denbora asko pasatzen duen autobusaren txartela topatzen, etxean gera dadila atera gabe, ezta? Kultura aldaketa baten beharra garbi ikusten da. Egoera eta erritmo oso desberdineko pertsonen artean bizi gara. Gaur ondo dagoena, bihar okerrago egon daiteke. Denok zahartuko gara eta ez dakigu nola. Zahartzaroari begiratzeko modua aldatu beharko genuke», segitu du Auzmendik.

Biztanleriaren zahartzeak beselakoak ere behar ditu, zerbitzu eta zaintza duina ziurtatzeko bideak nagusiki. «Guk garbi daukagu administrazio publikoek izan behar dutela ardura nagusia arlo horretan. Baina, era berean, garbi daukagu gaia ez dugula administrazio publikoen esku bakarrik utzi nahi, badaudelako hainbat arlo ez dituztenak konponduko. Eta gizarteak zahartzaroa begiratzeko duen modua aldatzea da horietako bat», iritzi dio Auzmendik. «Guk garbi daukagu erronka gizarte osoarena dela eta ezin dugula beste alde batera begiratu», gaineratu du Goikoetxeak.

INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA

Erronka gizarte osoarena izanagatik, normalean zahartzaroaren ajeez ez da kezkatzen etxean edo gertu ikusten ez dituenak. Afagik lehen eta Aubixak orain lan handia egiten dute demenztzia edo Alzheimerra gertutik ezagutzen duten familiekin. «Horrelako egoera batean dena da zalantza. Zer gertatuko da? Zein bide hartuko du gaixotasunak? Zer egin dezakegu? Ez da erraza gaixotasunarekin bizitzea, baina faseak ezagutzeak, sintomak ezagutzeak... finean, informatua egoteak asko laguntzen du. Beldurra ezezagutzatik eta bakardadetik etortzen da. Baina informatua baldin bazaud, gaixotasunaren berri baldin baduzu, horren parean nola jokatu baldin badakizu... askoz samurragoa da egoera. Guk hori bideratu nahi dugu eta informa-



«Gaur ondo dagoena, bihar okerrago egon daiteke. Denok zahartuko gara eta ez dakigu nola. Zahartzaroari begiratzeko modua aldatu beharko genuke»

«Zaintzaileek beren gain hartzen duten karga sekulakoa da. Gehienetan, gainera, emakumeak izaten dira. Familiak zahartzaroak dakartzan arazoak beren gain hartzen ari dira»

Zahartzaroa «gizarte osoaren erronka» dela ulertzen dute Aubixan eta garrantzi handia ematen diote belaunaldien arteko harremanari.
Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

zioa eta orientazioa emango dituen zentro bat martxan jarri nahi dugu. Afagik 1.200 bazkide ditu Gipuzkoan. Sarea badago, orain hori indartu eta antolatu egin behar da. Gure helburua da gizarte honek eskaintzen dituen tresna desberdinak egokitzea: eguneko zentroak, egoitzak, etxez etxeko laguntza... Zerbitzuak, oro har, egokitu egin behar dira egungo errealitatera. Hori garbi dago», esan du Goikoetxeak.

Bere ustez egungo gizartean Alzheimerra kasik «normalizat» jotzen da, «pentsatzen da zahartzaroaren aje normal bat dela, eta, normala denez, ez da ezer egiten horren aurrean. Ez da egia. Alzheimerra gaitz bat da, fase desberdinak ditu eta urterik urtera gero eta jende gehiago diagnostikatzen zaio. Horri erantzun beharra dago eta horretarako prestatu behar da gizartea».

BOLUNTARIO SAREA

Zaintza da, segur aski, Euskal Herriko etxe gehienetan burohauste handienak sortzen dituen alorra. Nola antolatu egunerokoa zaindua izan behar duena ondo zaintzeko? Herritarren agenda pertsonalean pisu handia duen arren, agenda politikoan ez da lehen lerroan agertzen.

«Gure helburuen artean aipatzen dugu udalek ere beren planifikazio estrategikoa egin behar dutela demenziaren aurrean. Erronka gizarte osoarena da eta datorrena gizarte osoarentzat dator, ez bakarrik sektore batzuentzat. Gizartea prestatu egin behar da; programak prestatu, ekintzak aurrera eraman, urbanismoa aldatu, etxeak moldatu, erietxeak moldatu... Gaur egun gaitz gehienak kronikoak dira eta sistema soziosanitarioa horretarako prestatu beharko da», esan du Maximo Goikoetxeak.

Aubixa Fundazioak boluntarioekin egiten du lan. Oraingoz pertsona bakarra ari da soldatarekin eta gainontzeko guztiak boluntarioak dira. Orain arteko erantzuna «harrigarria» izan dela nabarmendu dute Fundazio-

DONOSTIA GUTUNAK, ESKUBIDEAK LEHEN LERRORA

Datorren urriaren 20an, Aubixa Fundazioak eta Afagi Elkartek antolatuta, Donostia Gutuna kongresua izango da Donostiako Kursaal jauregian. Era horretara amaituko da azken hilabeteotan eztabaidara eta parte hartzera irekia egon den prozesua. Bide horren emaitza izango dira urriaren 20an jendaurrera agertuko dituzten bi dokumentu: Adineko Pertsonen Eskubideak eta Alzheimerdun Pertsonen Eskubideak.

Arreta prebentiboaren, diagnostiko goiztiarraren eta pertsona erdigunean jartzen duen medikuntza-arreta espezializatu eta jarraituaren printzipioak jasotzen ditu dokumentuak. Baita Alzheimerrak edo bestelako demenziek jotako pertsonen eskubideak garatu, babestu eta bermatzeko neurriak ere. Berdintasuna, baztertua ez izateko eskubidea, autonomia, autoerrealizazioa eta erabakitze ahalmena bezalako ideiak lehen lerrora ekartzeko proposamenak egiten dituzte testuek. Abusu eta tratatu txarren aurkako babesa ere espresuki lantzen dituzte.

Aipatu Donostia Gutunek zaintzailea ere oso aintzat hartzen dute. Hartara, tarte zabala eskaintzen diote zaintzaileen eskubideei eta eskubide horien garapen, babes eta bermeari: «Duintasunez zaintzeko eta zaintzaile gisa betetzen duten eginkizuna onetsia izateko eskubidea. Osasun fisikoa eta ongizate emozionala babesteko prebentzio, arreta eta laguntza zerbitzuak eskuratzeko eskubidea. Balorazio, laguntza eta arnasaldi zerbitzuetara sarbidea izatea, haien eginkizuna errazteko. Senideak zaintzea eta lan ibilbidea kontziliatzeko eta gizarte babeserako eskubidea». Zaintzaileei begira ikuskera berria dakarte dokumentuek, eskubideak lehen lerrora ekarriaz.

Zaindua izateko beharra duenaren eta zaintzailearen eskubideak lehen lerroan jartzen dituzten Donostia Gutunak aurkeztuko dituzte datorren urriaren 20an, Kursaal jauregian.
GAUR8

tik, 115 lagun ari baitira lanean batzorde desberdinetan. «Boluntario gehiago lortzea da gure helburua. Boluntario izateko modu asko daude, norberak ahal duen neurrian. Ideala litza-teke boluntarioen armada bat sortzea, auzoetan eta herrietan arituko dena. Fundaziora gertu-ratzen diren senitartekoei gehien aipatzen duten hitza ba-kardadea da. Hori denon artean konpondu dezakegu, ezta?», agertu du Auzmendik.

ZAINTZAILEAREN ESKUBIDEAK

Zaintzaren atzean zaintzaileak daude, eta horiek ere oso gogo-an dituzte Aubixatik bultzatuta-ko eskubideen kartan. “Autono-mia galdu duten adineko pertsonen, Alzheimerrek eta bestelako demenziek jotako pertsonen eta haien zaintzaileek dituzten eskubideen Donostia Karta” izenburua duen doku-mentuak zaintzaileei buruz ere hitz egiten du.

«Zaintzaileek beren gain har-tzen duten karga sekulakoa da. Gehienetan, gainera, emakume-ak izaten dira. Familiak ari dira zahartzaroak dakartzan arazoak beren gain hartzen eta askotan gertatzen da zaintzailea bera gaixotzea azkenerako, egoera oso latza delako. Gai horri ere heldu egin behar zaio», nabar-mendu du Auzmendik.

Generoaren ikuspuntutik ere zorrotz aztertze gaia da zain-tzarena, «belaunaldiz belaunal-di emakumearen gain erori bai-ta zaintzaren pisua. Horri buelta eman behar zaio, eta horretara-ko moduak eta laguntzak sortu behar dira», nabarmendu du Goikoetxeak.

Badaude egungo gizartean pi-su dezentekoa duten sinesme-nak, familia askorentzat karga bihurtzen direnak. Aubixatik horiek berrikusteko beharra ere nabarmen dute. «Badago pentsaera orokor bat defenda-tzen duena belaunaldi bakoit-zak beren etxeko adinekoak zaindu behar dituela, eta, des-kuiduren bat izanez gero, mo-ralki epaituak izango direla. Ho-ri gainditu beharra dago. Garai batean, esaterako, erresistentzia handia zegoen eguneko zentro-

en aurrean. Hori hautsi dela iru-ditzen zait, baina oraindik haus-teko beste logika asko geratzen zaizkigu. Esaterako, demenzia-ren inguruan dagoen estigma. Pentsa horrek zer-nolako pisua duen eskubideen gaian. Horre-gatik defendatzen dugu kultura aldaketa baten beharra: duinta-suna, errespetua, bera izateko eskubidea, ahal duen neurrian bere bizitza gidatzeko eskubi-dea...».

Aubixa Fundazioak jendartea aktibatze tresna izan nahi du. Zahartzaroa geratzeko etorri da, bere aje guztiekin. «Ekidin ezi-neko errealitatea da. Gizarteari dagokio hausnarketa horri serio eutsi eta zahartzaroa ahalik eta modu onenean kudeatzeko prestatzea».

ESKUBIDEEN KARTAK

Datorren urriaren 20an, Donos-tiako Kursaal, Aubixa Funda-zioaren lehen gogoeta sakona-ren emaitza aurkeztuko da: Donostia Gutunak izeneko bi testu [cartadonostia.com]. Batak Adineko Pertsonen Eskubideak izena du, eta, besteak, Alzhei-merdun Pertsonen Eskubideak.

Hilabetetako hausnarketaren eta taldeko lanaren emaitza dira bi dokumentu horiek. Gutunak koordinatzen aritu den Martin Auzmendiren hitzetan, «bene-tan eztabaida interesgarriak eman dira». Lantalde desberdi-netan banatuta, sektore desber-dinetako herritarrek parte hartu dute gutunen osaketan; osasun-gintza arlokoak, administrazio publikoaren bueltan dabilta-zanak, zuzenbidean adituak, seni-deak, zaintzaileak, zerbitzuen alorrean dihardutenak... askota-rikoak izan dira begiratuak eta ekarpenak. Prozesua, gainera, herritarren parte hartzera irekia egon da.

Donostia Gutunak deituriko eskubide aldarrikapen horreta-tik abiatuta, Aubixak erronka handia dauka aurrera begira: «Mendekotasuna duten edota baztertutako izateko arriskuan dauden adineko pertsonen es-kubideen behatoki bat jarri nahi dugu martxan. Proiektu potoloa da, baina hori da eman nahi du-gun datorren pausoa».

